

LAZKANO

ONTZI BERRIYA

Treñero berriakin
gaur goiz irten gera
sardiña ta bokarta
arrantza egitera;
erriko jendientzat
jateko ekartzera.
¡Atozte azkar onuntz
denak erostera!

Gure ontziza degu
liraña ta fiña,
surarik onenakiñ
ederki egiña;
badirudi usoa
pizkor ta ariña,
onekin errez biltzen
degu guk sardiña.

Arraun eta toletak
biziro berriyak,
legun legunak oso
begiragarriyak;
estribo eta killa
neurriyan jarriyak
au beziñ onil ez du
gure probintziyak.

Patroya deu gizon
trebe tazintsua,
begia ondo neurritzen
dakiitsasua;
arrek jaso ezkeru
chit gora besua,
gure ibillera da
gutziz erosua.

Itsaso zabalían
denak arkitzian,
eta naiko arraya
an arrapatzian;
gero andik portura
abiyatutzian,
¡denak usten ditugu
guk oso atzian!

Olatuengañean
gaztaren modura
erdibitzen du bere
muturrakin ura
Kolon-ek izan balu
au bere kontura
beronekin joango zan
bai beste mundura.

Lazkano deitzen zayo
 gure ontziyari
 gaur emen kalietan
 agertzen danari
 denak begira jartzen
 dira gaur berari
 egietan emenchen
 egiña diruri.

Pozez azldu gera
 gaur kalietara
 gure ontzi Lazkano
 erakutzitera
 gurekin joan nai duben
 erritarrik bada
 onekin joango gera
 Ameriketara.

JOSÉ ARTOLA

(Lazkano-ko erriyan aurten egin diran inauteri festetan, agertu dute ontzi egoki bat, arrantzale chukun pilla bat bertan zubela era kalietan ibilli dira itz neurtu abek doñu polit batian kantatuaz.)

